



Biluzten bagara errazagoa da

  IRATI MAJUELO ITOIZ

Joan, ez joan, zalantzan egon nintzen. Ekaineko lehen ostirala, lagunekin plana eta lau paretan artean egoteko gogo gutxi. Baina, hala ere, bazen zerbait kontzertura bultzatzen ninduen. Ez nituen lehenago entzunak (zaila, taldearen hirugarren emanaldi publikoa baitzen hura), baina ezagunak nituen eta bane-kien zerbait zekartela esku artean, zerbait ona. Joanez gero, damutuko ez zaizula esaten dizun zerbait hori. Hala ba, lagun bat konbentzitu (garagardo pare bat tarte-ko) eta Karrikirira hurbildu ginon.

Zain zeuden atean taldekideen senide eta lagunak, baita Iruñeko euskal kultura zaleak ere, ez baita alferrik Karrikiri hiriko euskaldun eta euskaltzaleontzako zutari eta nukleo. Barnean, betiko liburu eta arropa tartean, sabaitik zintzilikatutako bonbilet argitzen zuten oholtza inprobisatua, *Hitzen Hotsak* kontzertuetarako erabili ohi duten zoru zatia. Mikrofono-

rik ez, bozgorailurik ez. Hiru ahotsetan hasi zuten kontzertua pertsona bakar bat gehiago ere hartu ezin zezakeen publikoaren aurrean: *Beterik gatoz sendagaiz, gu prest gaude ta hi non haiz, bidea hasi da ta ibil bedi, berandu da baina garaiz*. Ez dakit berandu ote zen, baina bai garaiz. Noiz ez da garaiz gitarra, saxoa eta bibolina hartu, baxuari eta bateriari hots egin eta bidean hasteko? Haiek ere bazekiten, ibili ahala garaiz izanen zirela beti.

Biluzten bagara, errazagoa da idatzi zuen behin Sarrionandiak. Eta badirudi Ibil Bediko taldekideek ere hala uste dutela. Anplifikagailurik gabe, soinu gordinez aurkeztu baitziren Amets, Ibai, Areta, Javi eta Eder gure belarrietara. Entxufatu gabe, musikaren eta entzuleen artean harresirik eraiki gabe. Ahots biluziz, baina baita barrenak biluztera ere. Hasiera-hasieratik utzi zuten argi familiarreko kontzertua zela hura. Kantu bakoitzaren abiapuntua

IBIL BEDI MUSIKA TALDEAREN KONTZERTUA

NOIZ: ekainak 7

NON: Karrikiri, Iruñea

azaldu zuten, baita entzuleak galderak egitera animatu ere. Emaitza: giro intimoa, publiko emozionatua eta zortzi kanta, Ametsek esan moduan, herratik baino gehiago galeratik kantatuak, egiatik, zenbaitetan mingots baina gehiegizko dramarik gabe, bizitza bezain gordin eta soil. Eta Itoiz eta Balerdi Balerdiren bi bertsio eder, gazte hauek baino lehenago sortuak, eta bereziki adin batetik gorako entzuleak dantzan jarri zituztenak. Ostiral arratsalde hartarako ez zen gehiagorik behar.

Eta hau idazten ari naizelarik, egun batzuk joan dira kontzertua entzun nuenetik (are gehiago, bigarren kontzertu bat ere entzun nuenetik), eta bitarte horretan, Ibil Bedik burua atera du Euskal Herriko panorama musikalean. Niri damurik ez zait agertu ostiral iluntzea Karrikirin pasatzeagatik, eta orain zortzi kantako diskoa entzuten da behin eta berriz nire salako bozgorailuetatik. Ibil bedi! ●